



Aristizabal 9, behea
20120 HERNANI
Tel. 943/33.60.80
Faxa. 943/33.63.27

izadia1@euskalnet.net askagintza@euskalnet.net



ESKOLA EREMUAN OSASUN-HEZIKETA ETA DROGA-MENDEKOTASUNEN PREBENTZIORAKO “DROGAK LARRUGORRIAN” PROGRAMA.

1.- NAHITAEZKO HITZAURREA.

1.1. ASKAGINTZA Droga-mendekotasunen Fenomenoaren Normalizazioaren alde lan egiten duen herri ekimena da eta lan hau aurrera eramateko erabiltzen dituen oinarritzko tresnak Osasun-heziketa eta Prebentzioa dira.

1.2. IZADIA Ikerketa Sozialak burutzeko Kabinete Teknikoa da eta zientzia ezberdinetako profesionalak (psikologia, pedagogia, sexologia, antropologia, soziologia, etab.) osatua dago, bere oinarritzko tresnak formazioa eta ikerketak direlarik.

1.3. Droga-mendekotasunen Fenomenoa ikusmolde zehatz batetik aztertzen dugu. Horrela, guretzat fenomeno hau sintoma litzateke, egungo gizartean pertsonak dituzten gaizki egoteen eta zailtasunen adierazle. Gaizki egote eta zailtasun horiek estaltzeko eta jasangarriago egiteko droga kontsumo desegokiak edota gehiegizkoak egiten dira. Droga kontsumo mota horiek askotan substantzia baten inguruan egiten dira, baina beste askotan bat baino gehiago erabiltzen dira, horrela tolerantzia eta mendekotasun prozesuak azaltzen direlarik.

1.4. Osasun-heziketa pertsonen eta sozializazio egituren balore, jarrera eta jokabide batzuen inguruan oinarritzen da, horrela bertan egiten den aukera askatasunaren aldekoa, dependentzia patologikoaren ekiditea eta naturarekiko eta osasunarekiko harreman estua eta beraiekiko errespetua da.

1.5. Droga-mendekotasunen Prebentzioa esku hartze planifikatu multzo batetara bideratua egongo litzateke, oinarri nagusia droga kontsumo desegokiak eta/ edo konbultsiboak errazten dituzten faktore pertsonal eta sozialak eraldatzera litzatekeelarik.

1.6. Heziketa zentroa, familiaz, hezitzaileez, ikasleez eta komunitateaz osaturiko sozializazio egitura gisa. Heziketa zentroen funtzioa haurrak, nerabeak eta gazteak elkarbizitarako, ondoezen kudeaketarako eta bizitzaren zailtasunetarako baloreetan, edukietan eta trebetasunetan hezteko litzateke.

1.7. “Drogak larrugorrian” Programa, Osasun-heziketa eta Droga-mendekotasunen Prebentzioa aurrera eramateko tresna da. Euskal Herriko komunitate ezberdinetako 100 heziketa zentro, 2.000 irakasle, 10.000 guraso eta 30.000 nerabe baino gehiagorekin azken hamabost urte horietan izandako esperientzia eta gero sortutako programa da hau. Bertan planifikaturiko, koordinaturiko eta ebaluaturiko egitasmo eta aktibitate multzo batzuk daude.



Aristizabal 9, behea
20120 HERNANI
Tel. 943/33.60.80
Faxa. 943/33.63.27

izadia1@euskalnet.net askagintza@euskalnet.net



1.8. Programa hau aurrera eramateko familien eta irakasleen lankidetzaren beharrezkoa da. Programa honetan sozializazio egitura bakoitzaren heziketa funtzioa kontutan hartu nahi da (inork inoren lekua hartu gabe) eta elkarlanaren premia azpimarratzen da, bakoitzaren posibilitateak kontutan hartuz.

2.- PROGRAMAREN HARTZAILEAK.

- 2.1. Heziketa zentro baten irakasleak.
- 2.2. Heziketa zentro baten ikasleak.
- 2.3. Heziketa zentro baten familiak.
- 2.4. Heziketa zentroa kokatua dagoen komunitatea.

3.- PROGRAMAREN HELBURU ZEHATZAK.

3.1. Osasun-heziketa eta Droga-mendekotasunen Prebentzioari buruzko oinarrizko formazioa:

- drogak, ezaugarriak, efektuak, arriskuak etab.
- pertsonen testuinguru zehatzetan egiten dituzten droga kontsumoak.
- Osasun-heziketa eta Droga-mendekotasunen Prebentzioa, karakterizazioa, helburuak, edukiak, metodologia, baliabideak, ebaluaziorako adierazleak eta irizpideak.

3.2. Osasun-heziketarako eta Droga-mendekotasunen Prebentziorako programen diseinua ondoko sektoreekin:

- irakasleak.
- ikasleak.
- gurasoak.

3.3. Egitasmoaren diseinua, garapena eta ebaluazioa burutzen den bitartean aholkularitza eta laguntza eskaini.

- zailtasunak aztertuz.
- eskaerak landuz.
- baliabideak eskainiz.
- parte hartzen duten pertsonen aholkua eskainiz.



Aristizabal 9, behea
20120 HERNANI
Tel. 943/33.60.80
Faxa. 943/33.63.27

izadia1@euskalnet.net askagintza@euskalnet.net



4.- OSASUN-HEZIKETARAKO ETA DROGA-MENDEKOTASUNEN PREBENTZIORAKO “DROGAK LARRUGORRIAN” PROIEKTUAK.

4.1. Sektore ezberdinekin landu beharreko HELBURUAK.

IRAKASLEAK	IKASLEAK	FAMILIAK
<ul style="list-style-type: none">Gaiaren inguruko oinarritzko formazioa.Prebentzio funtzioen definizioa.Osasun-heziketarako eta Droga-mendekotasunen prebentziorako proiektuen diseinua.Baliabideen eskaintza.Aholkularitza eta etengabeko laguntza.Elkarbizitzarako arauak eta mugak. Gatazkak eta konponketa.	<ul style="list-style-type: none">Gaiaren inguruko oinarritzko formazioa.Kontsumoen, testuinguruaren, arriskuen etab. analisia.Nerabe-gaztearen identitatea eta nortasuna sustatzea.Baliabideen eskaintza.Aholkularitza banan-banaka eta konfidentzialki.Kontsumoaren atzeratzea sustatzea.Arriskuen eta kontsumo arduratsuen inguruko lana.	<ul style="list-style-type: none">Gaiaren inguruko oinarritzko formazioa.Kontsumoen, testuinguruaren, arriskuen etab. analisia.Familia eremuan aita-amen prebentzio funtzioa.Baliabideen eskaintza.Aholkularitza banan-banaka eta konfidentzialki.Komunikazioa, erantzukizunerako heziketa, arauak, mugak, autoestima, beldurren, denbora librearen etab. kudeaketa.

4.2. Sektore ezberdinekin landu beharreko EKINTZAK.

IRAKASLEAK	IKASLEAK	FAMILIAK
<ul style="list-style-type: none">Formazio Topaketak (edukiak, funtzioak, diseinua etab.).Lan Talde iraunkorra (garapena, aholkularitza etab.).Beren prebentzio funtzioetan ahokatuz eta baliabideak eta irizpideak eskainiz.	<ul style="list-style-type: none">Drogei buruzko pertzepzio eta ezagutzei buruzko galdesorta.Substantziei buruzko lanak zikloka: DBHko lehen zikloan (tabakoa, alkohola, etab.) eta DBHko bigarren zikloan (tabakoa, alkohola, cannabisa, etab.).Prebentzio ez espezifikoa.	<ul style="list-style-type: none">Formazio Topaketak (edukiak, funtzioak etab.).Guraso eskolak. Prebentziorako familia bitartekoen formazioa.Familia aholkularitza eta bitartekaritza.



Aristizabal 9, behea
20120 HERNANI
Tel. 943/33.60.80
Faxa. 943/33.63.27

izadia1@euskalnet.net askagintza@euskalnet.net



4.3. Sektore ezberdinekin landu beharreko BALIABIDEAK.

IRAKASLEAK	IKASLEAK	FAMILIAK
<ul style="list-style-type: none">▪ Eztabaidarako koadernoak: “Drogen aurrean: irakasleak larrugorri”.▪ “Drogak larrugorrian” liburua.▪ Ondoko gaiei buruzko dokumentazioa:<ul style="list-style-type: none">- Komunikazioa.- Erabakiak hartzea eta talde presioa.- Autonomia eta autoestima.- Erantzukizunerako heziketa: arauak eta mugak.- Denbora librea.- Trebetasun Sozialak.	<ul style="list-style-type: none">▪ “Oinarrizko kontzeptuak” liburuxka.▪ Tabakoa eta alkoholari buruzko liburuxkak.▪ Cannabisari buruzko liburuxkak.▪ Lanerako fitxak: egoeren analisia (autoestima, erabakiak hartzea etab.).▪ Bideoak, abestiak, nobelak, komikiak etab.▪ “Drogak larrugorrian” erakusketa.▪ “Rekoloklown” antzezlanak, Oihulari Klown taldearena.	<ul style="list-style-type: none">▪ Eztabaidarako koadernoak: “Drogen aurrean: familiak larrugorri”.▪ Bibliografia, bideoak, materialak, liburuak etab.▪ Ondoko gaiei buruzko lan fitxak:<ul style="list-style-type: none">- autoestima.- komunikazioa.- erantzukizunerako heziketa.- beldurren kudeaketa.

5.- METODOLOGIA.

5.1. Aktiboa eta parte-hartzailea.

5.2. Parte hartzen duten pertsonen eskaera eta interes guztiak abiatuta.

5.3. Heziketa zentroen lehentasun, erritmo eta testuinguruetara egokitua.

5.4. Ekintzak euskaraz ala erdaraz burutuz, errealitate linguistikoak errespetatuz.

5.5. Denon artean saio kopurua, hauen intentsitatea, egunak eta ordutegia zehaztuz eta heziketa zentro bakoitzeko dinamika propioak errespetatuz.



Aristizabal 9, behea
20120 HERNANI
Tel. 943/33.60.80
Faxa. 943/33.63.27
izadia1@euskalnet.net askagintza@euskalnet.net



6.- PROGRAMAREN KOSTUAK.

- 6.1. Formazio saioen dinamizazioa.
- 6.2. Galdesorten informea.
- 6.3. Koadernoak, liburuak, materialak etab.
- 6.4. Erakusketa, antzerkia, etab.
- 6.5. Bidaiak.

OHARRA: heziketa zentro bakoitzaren errekurtsotara egokitzeko prest gaude, baita erakunde publiko ezberdinetako baliabide ekonomikoak kudeatzen laguntzeko ere.

ASKAGINTZA - IZADIA